

BELAUNALDI ETENAZ

Imanol Miner Ariztizabal

Erreterian, ez dugu euskaldunok erabakitzen zer nola-ko hizkuntza politika nahi dugun gure herrirako. Azken hamarkadetan arrazoi desberdinak tarteko, herrian hizkuntza politika bakar bat aplikatu da: Politika eza, irizpide eza. Gizartean nagusi den euskararen aldeko borondatea ez dugu plano politikora isladatzen jakin eta agintean egondako politikariek hizkuntzaren normalizazioari eskeinitako arreta eskasak eta herriko euskalgintzaren egoera ahulak egungo egoerara eraman gaitu: euskararen erabilera ez da %10era iristen eta ez du gorantzako joerarik erakusten. Euskalgintzako hainbat erakunde urteetan egindako salaketa eta eskaerek udalaren hizkuntz politikan ez zuten eraginik izan, elkarrekin bildu eta batasunak sortzen duen indarrak baliatuz udal agintariak hizkuntz plangintzaren beharraz ohartarazi dituen arte. Hala ere, berriki abiatutako bideak emaitza xuxenik emango ote duen ikusteke dago oraindik.

Bitartean, euskaldungoak sakabanaturik darrai.

Amulleta Elkarteko mahai baten inguruan urtekari honen arduraduna eta euskaldunon elkarteko lehendakariarekin bilduta hitz eta pitz ari ginela, herri honetan euskaldunon artean denboran atzetik datorren belau-naldi arteko etenaren ondorioetaz jardun genuen; hiruetatik inork ez zuen "belaunaldi etena" aipatu baina begibistakoa zen, herriko euskaldunon artean oso nabarmen gertatzen ari den belaualdien arteko etenaz ari ginen. Urrutirago joan gabe, urtekari honetako azken argitarapenetan gazte jendea eta bereziki euskalduna falta zela aipatu genuen txolarte hartan. Hortxe beraz gaia, interesgarri askoa gainera...

Oarso Urtekariaren gabezia ez da bakarra ordea, hor dago Lau Haizetara Aldizkaria, gazte jendeak eginga eta jende nagusiaren kolaboratzaile zerrenda nahi baino txikiagoa duena; Hala ere ohituraz gazte jendearen gabezia hitz egiten da gure inguruan: Ereintza Elkartearen lantalde desberdinetatik behin baino gehiagotan aipatu izan da etorkizunean aurrera egiteko gazte jendearen eskasia. Kilometroak 99ren antolaketa eta erabaki gune-tan ere oso nabarmena izan zen gazte jendearen falta. Baina modu berean hitz egin daiteke jende nagusiaren eskasiaz: Lau Haizetara Euskaldunon Elkartearen egitas-mo eta egituretan jende nagusia falta da eta gabezia honek elkartearen jarduna bera neurri batean hipotekatu egiten du, herriko euskaldun guztion elkartea behar lukeenak, gazteen elkarte baten itxura ematen baitu sarritan.

Gazteak eta nagusiak herri honetan ez daude geldirik, ez dira inoiz egon eta egun ere ekimen desberdinetan ikus ditzakegu baina behar baino gutxiagotan ageri dira elkarlanean. Urteetan barrena, erakunde desberdinetan nahiz elkarte bateko lantalde desberdinetan, bakoitzak bere esparruan besteei bizkar emanda jardun du, esparruak zenbaitzutan lubaki bihurtzeraino. Eta eten honi esker, egunetik egunera belaualdien arteko inkomuni-

kazio nabarmenaren ondorioak nabariagoak egiten dira: elkarrengandik urrunduz, mesfidantza haunditu da, transmisio naturala eten da, gazteen erreferentziak aldatu dira, memoria historikoa galdu da eta baita iparra bera ere.

Nire bizitzako 25 urte luze hauetan Ikastola, Ereintza, Zintzilik Irratia, Musika Kultura Elkartea, Gazte Asanblada, Kilometroak 99, Orereta, Oinarri eta Landarbaso abesbatzak, Musika Kontserbatorioa, Lau Haizetara Euskaldunon Elkartea, Lau Haizetara Aldizkaria, Xenpelar Bertso Eskola bezalako erakundeetan nahiz hauen lantalderen batean jardun dut eta gehienetan egin dut topo adintalde arteko etenarekin. Eta bereziki euskalgintzan antzeman dut eten hori. Eta belaualdi etena esaten dudanean ez naiz adintalde desberdinen arteko betiko lehiak ari, gizakiak bizitzako aro desberdinetan duen ikuspegi aldaketa soilaz ari, beste zerbaitetaz ari naiz: Belaunaldi desberdinetako kideek elkarrekin lana egin nahi ezaz ari naiz, elkarrekiko onarpen ezaz, etab. Arrazoi edo aitzakiak asko izan daitezke baina bada bat bakarrik edo besteren batekin nahasita kasu gehienetan aurkitzen dena: Politikakeria.

Gure gizartean politika militantzia lepozurreraino sartuta dugu gaitza da. Gaitza diot, modu osasungarrian oso gutxi bizi duelako. Hamarkadetan atzera, herri honek ezagutu dituen momentu zailetan politikagintzak betetako paperak pisu handia hartu du eta bere ondorioak ez dira nolanhikoak, zenbaitetan bizilagunak gaisotzera iristertaino: Sarritan gure aurrean dugu pertsonaren aurpegia, izaera, gaitasuna eta borondatearen aurretik etiketa bat, sigla batzuk eta lehenago jarritako SanBenito eta aurreiritzi guztiak ikusten ditugu. Iraganak pisu handia du beti eta bizkarrean pilatutako ezinikusiek, mesfidantzek eta aurreiritziek zama haundiegia hartu dute gure herrian. Esate baterako, gurean lehenetsun haundiagoa du herri izen bat edo bestea defendatzeak, euskaldunok herrian gure bizitza euskaraz egin ahal izateko eman beharreko pausoen ondoan. Euskara ez da lehenetsuna, ezta euskaldunak ere.

Epe motzerako politika egin izanaren ondorioak dira hauek. Bai batzuk eta bai besteek politikagintzan eguneroko gaiak itsu-itsuan jorratzearen ondorioak, epe luze-rako ikuspegi gabe aritzearen ondorioak, erakitze lanak ahaztu eta elkarri harrika aritzearen ondorioak eta honetan ez da inor libratzen.

Nagusien konplexu eta ezinikusiak gazteei nola transmititzen zaizkien ere ezagutzeko parada izan dugu, gaitzerdi gehienek (kontu hauekin gogaituta akaso), gauzak beste begi batez ikusten ditugun.

Gure herriko erakunde politiko guztietako ordezkari gehienek elkarlanerako erakutsitako gaitasun eskasari begira ezin egon gaitzke. Berandu baino lehen, adin eta pentsakera guztietako euskaldunak bilduko dituen gune sinboliko baten antolatzea abiatzen ez badugu, hamar-

kada luzeetan pairatuko dituzte atzetik etorriko diren euskaldunek gure heldutasun faltaren ondorioak. Eta horretarako borondatea behar da, iraganeko kontuak gainditzeko (ez horregatik ahazteko) borondatea, politika aurreiritziak gainditzeko borondatea, pertsonatik pertsonarako harreman zubiak eraikitzeke borondatea eta guzti honekin batera euskara politikakeriaren aurretik lehenesteko borondatea.


Euskalgintzako erakunde batzuk, hor dabilta batera eta bestera gune sinbolikoa non antolatuko: Euskaldunon Elkartearen inguruan edo euskalgintzaren gunearen inguruan. Baina berriro ere duela zazpi urte Lau Hai-zetara sortu zeneko akats berberetan erortzeko arriskua dago. Herri honetako nagusi euskaldunen sektore haundi bat biltzen duten erakunde mordoska bat gizarte, kultura nahiz politika esparrukoak, hizkuntza normalizazioaren eremuko errealitatetik kanpo bizi da. Lehentasunez erakunde hauek euskararen normalizazioan duten eginkizunaz ohartarazi eta aktibatu egin behar dira, jada lanean diharduten beste erakundeekin elkarjarriz. Soilik honela lortuko da adintalde desberdinez osatutako gune sinboliko trinko bat, hizkuntza komunitate egituratu bat bere hizkuntzaren normalizazioari arnas berri bat emateko gaitasuna izango duen komunitate bat, gure bihotzetako txoko izkutuenetan gorderik dugun amets baten gauzatzea.

Gaur egun ordea, belaunaldien arteko zubiak eraikitzeke topagunea eta tresna, euskara, bere egoera eta erronkak inor gutxi kezkatzen du herri bedeinkatu honetan; ez premiarik ez duelako, arazorik gaitzenari bizkarra emanda axalkeria bizitzea epe motzera erosoago delako, beste era batera esanda, sarritan iparra zeharo galdua, noraezean dabilen komunitate baten gisara jokatzeko dugulako baizik.





Arg. Ion Urbe



OARSO

49

2000